

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

URNIETAKO UDALA

Iragarkia

Udalbatzarrak, 2021eko abenduaren 23an eginiko bileran, hasiera batez onartu du 2021eko Aurrekontu Orokorra, Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoa.

Udal Entitateen Aurrekontuen, 2003ko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, 15.1. artikuluan xedatutakoa betez, aipatu espedientea jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:

Erakutsita dagoen lekua: Kontu-hartzailletzan.

Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluan aipatzen diren interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten korporaziokideek.

Inpugnatzeko arrazoiak: aipaturiko Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoa urratzea.

Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko Sarrera Erregistro Orokorrean Bertan, 7:30etatik 14:30etara edo telematikoki www.urnieta.eus helbidean. Halaber, Herri-administrazioen administrazio-prozedura ekidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkez daitezke.

Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, Aurrekontu Orokorra, Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoa onartutzat joko dira behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Urnieta, 2021eko abenduaren 23a.—Jorge Segurado Iriondo, alkatea. (8346)

AYUNTAMIENTO DE URNIETA

Anuncio

El pleno en sesión celebrada en día 23 de diciembre de 2021 ha aprobado inicialmente el Presupuesto General, la Relación de Puestos de Trabajo y la Plantilla Orgánica para el ejercicio 2021.

En cumplimiento de lo dispuesto en el 15.1 de la Norma Foral 21/2003 Presupuestaria de las Entidades Locales, de 19 de diciembre de 2003, se somete a información pública conforme a las siguientes reglas:

Lugar donde se encuentra: Intervención.

Plazo para examinarlo y, en su caso, para presentar reclamaciones: quince días hábiles contados a partir del siguiente también hábil del de la inserción de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Quiénes pueden interponer reclamaciones: los interesados que relaciona el art. 17.1 de la Norma Foral 21/2003, además de los miembros de la Corporación que hubieran votado en contra del acuerdo.

Motivos de impugnación: Los señalados en el art. 17.2 de la Norma Foral 21/2003 y la infracción del ordenamiento jurídico.

Oficina de presentación: En el Registro General de Entrada del Ayuntamiento Bertan, en horario de 7:30 a 14:30 o telemáticamente en www.urnieta.eus. Así mismo podrán presentarse en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Órgano ante el que se reclama: Ayuntamiento Pleno.

Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado reclamación u observación alguna, se tendrán por aprobados definitivamente el Presupuesto General, la Relación de Puestos de Trabajo y la Plantilla Orgánica sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

Urnieta, a 23 de diciembre de 2021.—El alcalde, Jorge Segurado Iriondo. (8346)